

Antxon Salsamendi: «Jendearen parte hartzea gero eta premiazkoagoa da»

GOITIA / LASARTE

Lasarte-Oriako festen antolakuntzan gero eta lan gehiago egin beharrean aurkitu dira herriko arduradunak. Koadrilek martxoan biltzeko deia jaso arren jaiak antolatzeko orduan talde gutxi azaltzen dira, eta azkeneko orduan bi edo hiru lagun baino gehiago ez dira biltzen jaiak prestatzeko. Kexu antzera agertu zaigu jaien antolaketan lanean ibili den Antxon Salsamendi.

«Aurten ekintza asko zeuden prestatzeko eta lana pilatu egin zaigu. San Pedro elizan egiten den herri meza lan asko eskatzen du zeren eta urtean zehar egiten ez den meza berezia egitea bilatzen dugu», esan digu Antxon Salsamendi festetako antolatzailerak. Meza honetan herriko Etxeberria bertsolariak parte hartuko du, eta ez da urterik koralik gabe. Aurten Alboka koralak ihardungo da eta meza irteeran Erketz dantza taldea egongo da.

Korporazioa gonbidatua dago eta txalapartak eta txistulariak alaitasuna emango diote herri meza honi.



«Aurten ekintza asko zeuden prestatzeko eta lana pilatu egin zaigu, laguntza txikia izan dugulako» ●

Meza irteeran ha-maiketako herrikoia ez da faltako aurreko urteetan izan duen arrakasta ikusirik.

Herri kirolak prestatzeko Agite- ren presentzia ziurtatu da eta aurten ere zutikako mozketan ihardungo da. Goenatxo eta Gibitegi harrijasotzeko ibiliko dira eta triathlon eta pentathlon probak antolatu dira desafio moduan, txingak, harrijasotzea, egur mozketak, trontza eta korrika izango direlarik.

Aurreko urteetan helduentzat sueto lehiaketak prestatu ziren, baina jendea nahiko lotsati agertu zen eta partaideak inguratzeko nahiko arazo izan zituzten antolatzailerak. Aurten arazo berdinarekin topo ez egiteko haurrak izango dira txapelketan parte hartuko dutenak fandango eta arin-arin dantzekin. «Sarritan koadrilak laguntza eguneko bazkarian eta afarian azaltzen dira eta ez dute festetako beste ekintzetan parte hartzen. Hau konpontzeko tortila lehiaketa antolatu dute ea oraingo honetan norbait agertzen den», dio Antxon Salsamendi jaietako arduradunak.



I. MARTIARENA

➤ **AIHERRA**ko gauean bi musika ekitaldi iragarri dituzte gaurko. 23.00etan Niko Etxarten kontzertua izango da eta ordu bete beranduago, gaurdian, Minxoriak taldearen eskutik, dantzaldia.

➤ **DIMA**ko jaiak atzo hasiera emanda, gaur 18.00etan herri kirolak egingo dira. Mindegia eta Larrea, Ugarteburu eta Atutxaren aurka arituko dira aizkoran. Irabazle gertatzen den bikotearentzat, 100.000 pezetako saria izango da. 22.00etan, berriz, Anje Duhalderen eskutik jaialdia egingo da.

➤ **EIBAR**ren 10.00etatik 14.00arte, paella eta tortila lehiaketa egingo da. Koadrila eta elkarteek parte hartuko dute Galeria Parkean burutuko den saio honetan. Gaueko 11etan Alkartu taldearen eskutik, berbena ekitaldia izango da Urkizun.

➤ **DONEZTEBE**n gaua ondo pasatzeko aukera izango da. Iluntzeko 8.30etan hasi eta gaueko 10.30etara Los Clan taldearekin dantzaldia izango da. Afal ondoren, goizeko 1etatik 5ak alderarte, talde berdinarekin ekitaldia izango da.

➤ **LOIU**ko jaien gaurko egitaraua txistulariek zabalduko dute goizeko bederatzietan. Arratsaldean rallye humoristikoa eta abesbatzen ekitaldia izango dira eta ilunabarreko bederatzietan Zuberoako dantza herrikoien emanaldia. Gauerako berriz, boxeoa eta Ekaitz taldearen berbera prestatu dituzte antolatzailerak.

Adaxka
KAFETEGIA

ZORIONAK!!

Geltoki kalea, 6 Tfnoa.: 371790
LASARTE

ETXEBE
TABERNA

Zorionak
Lasartear
guztiei

Juan de la Cosa, 13
LASARTE



KOTXE BERRI ETA
AUKERAZKOEN SALMENTA
AEGON
ASEGURU ELKARTEA

K. Nagusia, 5 Tfnoa 36 22 75 LASARTE Idiazabal Tfnoa.: 55 46 99

Cash LASARTE



Kale Nagusia z/g LASARTE
Tfnoa.: 37.10.11

Egunkaria

Festa on
irakurleoi!!



GELTOKI KALEA 1, LASARTE



TXARTEL
HOTELA
eta
KAFETEGIAK

LASARTE-ORIAKO
herritar guztiei
festa ezin hobeak
opa dizkie

Tefnoak.: 36 23 40 / 41 42



◆ ALKANDORAK
◆ ATERKIAK
◆ KONFEZIOAK
◆ PONDUZKO
GENEROA

Nagusia Bis, 16 Behea LASARTE



ZORIONAK
ETA ONDO
PASA !!

TABERNAK
Zorionak
opa dizkizue

GOIZ - ARG
TABERNA

Tfnoa: 36.21.15 LASARTE-ORIA

TXIKI JAI

5'30etatik AURRERA
GOSARIAK EGUNERO
K. Nagusia bis Tfnoa: 37 09 77